BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

4601

EBAZPENA, 2012ko irailaren 4koa, Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendariarena; honen bitartez, Baimendutako Profesionalak Prestatzeko Erakunde Aintzatetsia den «Factor 4 Ingenieros, S.L.», Arabako Lurralde Historikoan dauden instalazioetan ikastaroak emateko baimentzen da.

Esp. zk./ Gaia: SEG/0054/2012.

AURREKARIAK

Bat.– Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendariaren 2012ko uztailaren 9ko ebazpen bidez, Factor 4 Ingenieros, S.L., Bizkaiko Lurralde Historikoan, Galdaren industria-operadore norbanakoen prestakuntza txartelerako Baimendutako Profesionalak Prestatzeko Erakunde Aintzatetsi gisa aitortu zen. Erakunde horren Erregistroko identifikazio-zenbakia honako hau da: R.E.F.P.A., A-00105.

Bi.– Factor 4 Ingenieros, S.L. elkartearen ordezkariak, era berean, galdaren industria-operadore norbanakoen prestakuntza txartelerako Baimendutako Profesionalak Prestatzeko ikastaroak, Arabako Lurralde Historikoan dauden, eta ondoren zehazten diren, instalazio batzuetan emateko baimen eskaera aurkeztu du:

– Arabako Ingenieri Tekniko Industrialen Elkargo Ofiziala, Gerardo Armesto Enparantza 2-1, Vitoria-Gasteiz.

– Diocesanas Nieves Cano, Nieves Cano kalea 10, Vitoria-Gasteiz.

Hiru.– 2012ko abuztuaren 3an, Arabako Lurralde Ordezkariak Factor 4 Ingenieros, S.L. erakundeak aurkeztutako eskaera onartzearen aldeko txostena luzatu zuen, industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzeko den, martxoaren 14ko, 63/2006 Dekretuan xedatutako betekizunekin bat datorrelako.

Espediente horri ebazpena emateko, honako hauek kontuan hartu eta horiei buruzko aipamena egin beharko da:

OINARRI JURIDIKOAK

Bat.– Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendariari dagokio Ebazpen hau ematea, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuaren 14. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Bi.– Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera, egiaztatuta dago aipatutako enpresak izan badituela industria-segurtasunaren alorrean kalifikazio indibidualeko txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren 22. artikuluan ikastaroak emateko gutxieneko gisa eskatzen diren instalazioak, eta instalazio horiek Arabako Lurralde Historikoan daude.

Hiru.– Arestian aipatutako 63/2006 Dekretua aplikatzeko barne-jarraibideak ematen dituen Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendariaren eta Energia eta Meategien zuzendariaren 2007ko martxoaren 9ko ebazpenaren 24.3 artikuluaren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoan baimendutako Factor 4 Ingenieros, S.L. prestakuntza-erakundeak, dagokion baimena lortu beharko du hasierako baimenean jasotakoak ez diren instalazioetan ikastaroak emateko.

Adierazi diren lege-xedapenak eta oro har aplikagarriak izan eta horiekin bat datozen gainerako arauak aztertuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Factor 4 Ingenieros, S.L., Galdaren industria-operadore norbanakoen prestakuntza txartelerako Baimendutako Profesionalak Prestatzeko Erakunde Aintzatetsiari, Arabako Lurralde Historikoan dauden honako instalazioetan ikastaroak emateko baimena ematea:

– Arabako Ingenieri Tekniko Industrialen Elkargo Ofiziala, Gerardo Armesto Enparantza 2-1, Vitoria-Gasteiz.

– Diocesanas Nieves Cano, Nieves Cano kalea 10, Vitoria-Gasteiz.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar dakioke Industria eta Energiako sailburuordeari, jakinarazten denetik hilabeteko epearen barruan. Hori guztia, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluan eta hurrengoetan azaltzen denari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 4a.

Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria,
YOLANDA LÓPEZ FERNÁNDEZ.